

JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2025eko abenduaren 15ean honako Dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak Kale garbiketako zerbitzuko arduradunaren laguntzailea aldi baterako izendatzeko deialdian ariketa psikoteknikoaren inguruko informazioa onartu zuen 2025eko abenduaren 15ean emandako alkatearen dekretu bidez.

Oinarrietan hau jartzen du:

“—Ariketa psikoteknikoa: Lanpostuaren profilari egokitzeari buruzkoa. Derrigorrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesiografikoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatza bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko edo/eta elkarrizketa egitean datza.

Ariketa hau egiteko, adituak direnak izendatuko ditu alkateak dekretu bidez, eta horrela jakinaraziko dio epaimahaiari.

Halaber, adituak/adituek epaimahaiari jakinaraziko dizkio(te) ariketaren inguruko informazioa eta ariketaren garapenean izandako gorabehera guztiak; adituaren/adituen proposamena(k) lotesleak izango dira.

*Ariketa honi **hogeitabost (25) puntu** emango zaizkio guztira, eta ariketa gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko, gutxienez egingo diren proba bakoitzari emandako puntuazioaren %50a eta guztira hamabi eta erdi (12.5) puntu lortu beharko dira.”*

Udal honek dekretu horretan jasotakoa osatzea komenigarria izanik, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: 2025eko abenduaren 18an egingo den ariketa psikoteknikoa oinarrietan jasotakoari jarraituz, test-a eta elkarrizketa izatea. Halaber, test-a gehienez ere 10 punturekin eta elkarrizketa 15 punturekin baloratzea.

BIGARRENA: Erabakia udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea.”

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan

IDAZKARIA

SE COMUNICA que el alcalde el 15 de diciembre de 2025 ha emitido el siguiente decreto:

“Mediante Decreto de Alcaldía de 15 de diciembre de 2025, el Ayuntamiento de Bergara aprobó la información relativa al ejercicio psicotécnico en la convocatoria para el nombramiento temporal de un/a auxiliar del responsable del servicio de limpieza viaria.

En las bases pone lo siguiente:

“– Ejercicio psicotécnico: *Sobre adecuación al perfil del puesto. De carácter obligatorio y eliminatorio para todas las personas aspirantes.*

Consistirá en la realización de una serie de pruebas psicotécnicas de aptitudes y de personalidad, y/o una entrevista, encaminadas a valorar la adecuación de las personas aspirantes al perfil profesigráfico del puesto y a las funciones a desempeñar.

Para la realización de este ejercicio, mediante Decreto de Alcaldía se nombrará a personas expertas y se le comunicará al Tribunal.

Asimismo, la(s) persona(s) experta(s) comunicarán al tribunal la información sobre el ejercicio y cualquier incidencia en el desarrollo del mismo, siendo sus propuestas vinculantes.

*Este ejercicio se calificará sobre un máximo de **veinticinco (25) puntos**, siendo necesario obtener un 50 % de la puntuación prevista en cada prueba y en total un mínimo de doce y medio (12,5) puntos para superar el mismo y continuar con el proceso.”*

El ayuntamiento ha visto conveniente completar dicho decreto, **HE RESUELTO:**

PRIMERO: Que el ejercicio psicotécnico a realizar el 18 de diciembre de 2025 se realice conforme a lo recogido en las bases, que sean test y entrevista. Asimismo, valorar el test con un máximo de 10 puntos y la entrevista con 15 puntos.

SEGUNDO: Publicar la presente resolución en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la página web municipal.”

En Bergara, a fecha de la firma electrónica.

EL SECRETARIO

